

I. ERANSKINA

I. PROFESIONALITASUN-ZIURTAGIRIAREN IDENTIFIKAZIOA

Izena: Haurrentzako eta gazteentzako hezkuntza-aisialdiko jarduerak dinamizatzea

Kodea: SSCB0209

Lanbide-arloa: Gizarte eta Kultura Zerbitzuak

Lanbide-eremua: Kultura- eta jolas-jarduerak.

Lanbide-prestakuntzaren maila: 2

Erreferentziako lanbide-prestakuntza:

SSC564_2 Haurrentzako eta gazteentzako hezkuntza-aisialdiko jarduerak dinamizatzea (567/2011 ED, apirilaren 20koa)

Profesionaltasun-ziurtagiria eratzen duten kompetentzia-atalen zerrenda:

UC1866_2: Haurrentzako eta gazteentzako hezkuntza-aisialdiko jarduerak antolatzea, dinamizatzea eta ebaluatzea.

UC1867_2: Talde-prozesuetan jardutea, haurtzaroaren eta gaztaroaren portaera eta eboluzio-ezaugarriak aintzat hartuta.

UC1868_2: Aisialdiko animazioko hezkuntza-teknikak eta -baliabideak erabiltzea.

Kompetentzia orokorra:

Haur eta gazteei zuzendutako aisialdirako hezkuntza-jarduerak antolatu, dinamizatu eta ebaluatzea, erakunde baten programazio orokorraren esparruan, talde-animazioko teknika espezifikoak aplikatuta, balioetan oinarritutako hezkuntzari bereziki erreparatuta eta arriskuen prebentzioari eta segurtasunari buruzko oinarrizko neurriak betez.

Lanbide-ingurunea:

Lanbide-esparrua:

Lanbide-jarduera esparru publiko eta pribatuan garatzen du, haurren eta gazteen hezkuntza-aisialdiko jardueren antolaketa-, animazio-eta dinamizazio-arloetan.

Jarduera-arloak hauek dira: aisialdiko gizarte- eta hezkuntza-jarduerak eta aisialdiko jarduerak hezkuntza-zerbitzuetan eskola-esparruaren barruan eta esparru horretatik kanpo.

Haurrentzako eta gazteentzako hezkuntza-aisialdiko dinamizazio-programak egin asmo dituen edozein erakundetan garatu ahal izango dute beren kompetentzia, goragoko mailako babesarekin eta gidaritzarekin, eta hezkuntza-proiektu baten barruan. Jarduera profesionalean irisgarritasun unibertsaleko printzipioak aplikatuko dira, indarrean dauden legeen arabera.

Produktzio-sektoreak:

Haurren eta gazteen hezkuntza-aisialdiaren sektorean kokatzen da, eta zenbait zentro edo ekipamendutan garatzen; besteak beste, hauetan: zentro zibikoak, haur-zentroak, kultura-zentroak, klubak, aisialdiko zentroak eta hezkuntza-aisialdiko elkarteak/taldeak, gaztelekuak, hiri-koloniak, ludotekak, aterpetxeak, kanpatzeko lekuak eta kanpamentuak, kolonietako etxeak, baserri-eskolak, natura-gelak eta -eskolak, merkataritza-inguruneetako hezkuntza-aisialdiko guneak, ikastetxeak, haur- eta gazte-garraioak, elkarteak, lan-esparruak eta gazte-trukeak.

Zeregin eta lanpostu adierazgarrienak:

3724.1034 Hezkuntza eta aisialdiko monitoreak.

Haurrentzako eta gazteentzako hezkuntza-aisialdiko begiralea.

Kanpamentuetako, gazteentzako ostatuetako, udalekuetako, baserri-eskoletako eta natura-eskoletako begiralea.

Jardueren begiralea eskola-eremuan.

Lanbidean aritzeko bete beharreko baldintzak:

Administrazio eskudunak erabakitako egiaztagiria edukitzea.

Lotutako prestakuntzaren iraupena: 310 ordu.

Prestakuntza-moduluen eta prestakuntza-unitateen zerrenda:

MF1866_2: Hezkuntza-jarduerak haurren eta gazteen aisialdian. (60 ordu)

MF1867_2: Talde- eta hezkuntza-prozesuak haurren eta gazteen aisialdian. (30 ordu)

MF1868_2: Animazio-teknikak eta -baliabideak aisialdi-jardueretan. (60 ordu)

MP0270: Lanekoak ez diren lpraktika profesionalen modulua haur eta gazteen hezkuntza-aisialdiko jarduerak dinamizatzeko (160 ordu).

II. PROFESIONALITASUN-ZIURTAGIRIAREN LANBIDE-PROFILA

1. kompetentzia-atala

Izena: HAURRENTZAKO ETA GAZTEENTZAKO HEZKUNTZA-AISIALDIKO JARDUERAK ANTOLATZEA, DINAMIZATZEA ETA EBALUATZEA

Maila: 2

Kodea: UC1866_2

Lanbide-jardunak eta jardun horiek gauzatzeko irizpideak

RP1: Proiektua aisialdiak gaur egun dituen inplikazioetara egokitzea, eta, horretarako, dibertsitatea eta gizarte- nahiz kultura-aldaketak aztertzea esku hartzeko testuingurua ezartzeko.

CR1.1 Esku-hartzearen egungo esparrua aisialdiaren bilakaera historikoan oinarritzen da, premia berrien arabera jarduteko modalitateak kontuan hartzeko.

CR1.2 Egungo gizarte-, kultura-, politika- eta ekonomia-errealitatea aisialdiko gizarte- eta hezkuntza-jarduerak dauden premietara egokitzeke izan beharreko proiektuan eta garapenean islatzen da.

CR1.3 Ingurune hurbilena baloratzean, kritika- eta azterketa-gaitasuna agerian gelditzen da, proposamen eraldatzaileak hautemandako beharrei lotuta antolatzeke.

CR1.4 Hezkuntza-aisialdian esku hartzean, haur eta nerabeentzako zerbitzuak erregulatzen dituen lege-araudia haiek beteko direla bermatzeko aplikatzen da.

CR1.5 Entitate eta erakundeek hezkuntza-ideiak eta -helburuak erkatu egiten dira, esku-hartzea haietan oinarrituta, gure ekintza-eredua erreferentziatzeko esparrura egokitzeke.

RP2: Balioen transmisioa eta sorrera ezartzea hezkuntza-aisialdian, sozializatzeko eta gizartearen parte hartzeke tresna moduan, proiektuaren barruan jarduteke.

CR2.1 Aisialdiaren esku-hartzea hezkuntza baiesteko elementu moduan identifikatzen da, hezkuntza ikuspegi osotik hartuta.

CR2.2 Sozializazio-eragileen hezkuntza-funtzioa esku-hartze prozesuan antolatzen da, proposatutako helburuekiko koherentzia bermatzeko.

CR2.3 Hezkuntza-aisialdia gizarte-partaidetza eta -partaidetzarako ikasteko gune moduan erabiltzen da.

CR2.4 Balioetan hezte esplicituki eta nahita jasotzen da jardueren prestaketan, parte-hartzaileen jarrera positiboak sustatzeko.

CR2.5 Teknikariaren jarrera hezkuntza-aisialdiaren berezko balioekin identifikatzen da, eta balio horiek esku-hartzearen testuinguruan jarduerak orientatzeko erabiltzen dira.

CR2.6 Balioak sortzen dituzten arloak (besteak beste, ingurumena, dibertsitatea, generoa, kontsumoa eta osasuna) jardueretan jasotzen dira, balioen bizipena izateke eguneroko jardunean barneratuta.

RP3: Esku-hartzea jardute-testuinguruan kokatzen duten erreferentziatzeko esparruak zehaztea, hezkuntza-aisialdiko proiektua ezaugarritzeko.

CR3.1 Erakundearen ideiak aitortzen dira, jardun zehatzean kokatuta, proiektuari batasuna eta iraunkortasuna emateke.

CR3.2 Aisialdiko esku-hartze baten esparrua den hezkuntza-proiektua aitortu egiten da, jarduketa orientatuz, jarduerak antolatzeke.

CR3.3 Organigrama eta taldeko kide bakoitzaren eginkizunak identifikatu egiten dira, eta haien jarduera zehaztu, erakundearen esparrura egokitzeko.

CR3.4 Talde-lana funtsezko elementutzat jotzen da haurren eta gazteen aisia eta aisialdiko hezkuntza-arloko esku-hartzearen antolaketa-metodologian.

RP4: Haurrentzako eta gazteentzako hezkuntza-aisialdiko jarduerak antolatzea modu parte-hartzailean, jardute-esparrua kontuan hartuta, esparrura egokitzeko.

CR4.1 Jardueren programa hezkuntza-helburuetara egokitzen da, daukaten asmoa zehatz dezaten, xede duen taldearen beharrak eta interesak kontuan hartuta.

CR4.2 Jardueraren garapena planifikatu egiten da, balia daitekeen denborara eta taldearen ezaugarrietarako egokituta, gauzatuko dela bermatzeko.

CR4.3 Modu parte-hartzailean eta aurrez egiten da behar diren baliabideen aurreikuspena, jarduera ziurtatzeko, ustekabeak saihestuta eta beharrak aurreratuta.

CR4.4 Jardueren ebaluazioaren diseinua plangintzan jasotzen da, hezkuntza-prozesu ez-formalean jasotzeko, helburuak kontuan hartuta.

CR4.5 Jarduerak gainerako taldekideekin programatzen dira, betiere koordinatuta, guztiak esku har dezaten proiektuaren garapenean.

CR4.6 Jarduera gauzatzen den lekua hezkuntza-tresna moduan erabiltzen da, eta taldea motibatzen du helburuak lortzeko.

RP5: Aisialdiko hezkuntza-jarduerak planifikatuaren arabera garatzea, helburuak betetzen direla ziurtatzeko.

CR5.1 Jardueraren jakinarazpena eta garapena modu ulergarrian eta motibatzailean egiten da, pertsona guztien inplikazioa lortzeko, izaera parte-hartzailea areagotuta.

CR5.2 Taldearen interesak eta iradokizunak aztertu eta kontuan hartzen dira, jasoak izateko, eta ikusten da jardueraren garapena hobetzen duten ala ez.

CR5.3 Jardueraren planteamendua aldatu egiten da, jarduerak ez badira egoera berrietara egokitzeko aurreikusitakoak, jarduteko testuinguru berrira egokituta.

CR5.4 Jarduerak taldeko beste kideekin, pertsonekin edo erakundeekin koordinatuta garatzen dira, koherentziaz jokatzeko, haien guztien irizpideak eta orientazioak kontuan hartuta.

RP6: Jarduerak ebaluatzea zehaztutako proiektuaren arabera, egokituta daudela egiaztatzeko.

CR6.1 Etengabeko ebaluazio-prozedurak, plangintzaren arabera, jarduerak hobeto garatzeko erabiltzen dira.

CR6.2 Ebaluazioaren garapena eta emaitza parte-hartzaileekin eta gainerako hezkuntza-eragileekin partekatuta gauzatzen dira, haiek guztiak inplikatuz erabakiak hartzean.

CR6.3 Ebaluazioak berekin dakar idatzizko txostenak eta memoriak egitea, bai eta hobekuntza-proposamenak ere, geroko jardueretan kontuan har daitezten.

RP7: Bizitza-ohitura osasungarriak sustatzea, eta lanean ezartzea, aldaketak sustatzeko parte-hartzaileen bizitzan.

CR7.1 Jarduerak arau osasungarriak errespetatuta programatzen dira, jokaera-eredu koherenteak aurkezteko.

CR7.2 Aurre egiteko bitartekoak eta teknikak proposatuta programatzen dira drogei eta adikzioei buruzko informazio- eta sentsibilizazio-jarduerak, kontsumoa prebenitzeko.

CR7.3 Elikadurarekin, higienarekin, sexualitatearekin eta besterekin zerikusia duten ohiturak transmititu egiten dira, eta sustatu, errazago hartzeko.

CR7.4 Monitorearen jokabidea bat dator transmititzekoak diren balio osasungarriekin, ekintza-eredu bat proposatuta.

Lanbide-testuingurua

Produktzio-bitartekoak.

Kontsulta-liburuak Material espezifikoa. Haurrentzako eta gazteentzako zerbitzuei buruzko lege-araudia. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKTak).

Produktuak eta emaitzak.

Aisia- eta aisialdi-programak zer testuingurutan egiten diren ezagutzea. Bizitza asoziatiboa (antolaketa, parte-hartzea eta komunikazioa, besteak beste) osatzen duten elementuen identifikazioa eta erabilera. Hezkuntza-aisialdiko jardueren programa erakargarriak eta motibatzaileak zenbait inguruetan. Jardueren proiektuak eta memoriak. Zehaztutako proiektuaren arabera ebaluatutako jarduerak. Ohitura osasungarrien garapena.

Erabilitako edo sortutako informazioa.

Kontsultako bibliografia espezifikoa. Araudiak. Dokumentazio grafikoa zenbait euskarritan. Jardueren proiektuak eta memoriak. Zenbait erakunderen ideiak. Jardueren programazio-, jarraipen- eta ebaluazio-fitxak. Datu-baseak eta bitartekoei buruzko fitxak. Aisialdiko web-orri espezifikoak.

2. kompetentzia-atala

Izena: TALDE-PROZESUETAN JARDUTEA, HAURTZAROAREN ETA GAZTAROAREN PORTAERA ETA EBOLUZIO-EZAUGARRIAK AINTZAT HARTUTA

Maila: 2

Kodea: UC1867_2

Lanbide-jardunak eta jardun horiek gauzatzeko irizpideak

RP1: Hezkuntza-aisialdiko jardueren programazioa taldeen eta norbanakoen ezaugarrietara egokitzea, haien behar espezifikoei erantzuteko.

CR1.1 Jarduerak taldearen garapen-fasera eta xede dituzten pertsonen kultura-ezaugarrietara nahiz gaitasun fisiko, psikiko, sentsozial, mugimenezko eta intelektualetara egokituta programatzen dira, programatuaren arabera garatu ahal izateko.

CR1.2 Monitorearen eta taldeko pertsonen arteko komunikazioa pertsona horiek ulertzeko duten gaitasunera egokitzen da, hezkuntza-motibazioa eta -baliagarritasuna areagotzeko, informazioaren transmisioa ziurtatuta.

CR1.3 Parte-hartzaileen behaketa jarduerak haien ezaugarrietara egokitzeke teknikak erabiliz egiten da.

RP2: Taldeen eta norbanakoen ezaugarrietara egokituta egitea eta garatzea jarduerak, jasotzaileengana hurbilarazteko.

CR 2.1 Talde bakoitzaren eta/edo norbanako bakoitzaren behar bereziak kontuan hartzen dira, akuilatzeke eta motibatzeke, eta inplikatu egiten dira parte har dezaten programatutako jardueretan.

CR 2.2 Taldeko kideen kultura-dibertsitatea kontuan hartzen da, eta esku hartzeke estrategiak erabiltzen dira, errespetua sustatzeko.

CR 2.3 Parte-hartzaileen errealitate sozioekonomikoa kontuan hartzen da jarduerak programatzean, dauden beharretara eta aukeretara egokitzeke.

CR 2.4 Norbanakoen eta taldeen problematikak kontuan hartzen dira, eta aztertu, aurre egin eta kudeatzeko.

RP3: Aisialdiko jarduerak egitea, taldeak animatzeko teknikak erabiliz, egoerari eta kolektibo jasotzaileari lotuta, aiseago gara daitezten.

CR3.1 Talde-teknikak taldea eta jarduerak dinamizatzeko erabiltzen dira, bai eta jarduerak errazago garatzeko ere.

CR3.2 Taldeekin lan egiteko teknikak gatazkak prebenitu eta kudeatzeko erabiltzen dira, eta emaitza ebaluatu egiten da.

CR3.3 Taldeekin lan egiteko teknikak komunikazioa eta taldearen trinkotasuna sustatzeko erabiltzen dira, bai eta taldearen bilakaera bideratzeko ere.

CR3.4 Esku-hartzea zer egoeratan gertatzen den kontuan hartzen da, eta animazio-teknikak aukeratu eta sortu egiten dira, taldearen behar eta ezaugarrietara egokitzeke.

CR3.5 Taldeko kideak inplikatzeko saiatzen da, guztien integrazioa eta gozamina lortzeko, eta laguntza ematen zaie arazoren bat dutenei.

Lanbide-testuingurua

Produktzio-bitartekoak.

Kontsulta-liburuak Material espezifikoa. Erregistroko dokumentazioa: jardueren jarraipena egiteko fitxak. Jarduerari buruzko informazioa transmititzeko materiala. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKTak).

Produktuak eta emaitzak.

Hautzaroko eta nerabezaroko aldien oinarritzko ezaugarriak ezagutzea. Taldeak dinamizatzea taldeen parte-hartze aktiboarekin. Gizarte-partaidetzarako jarreraren garapena. Jarduerak taldera egokitzea. Animazio-teknikak egoerara eta kolektibora egokitzea.

Erabilitako edo sortutako informazioa.

Kontsultako bibliografia espezifikoa. Dokumentazio grafikoa zenbait euskarritan. Jardueren proiektuak eta memoriak. Inguruneko gizarte- eta talde-baliabideen gidak eta programak. Sarean baliu daitezkeen informazio- eta prestakuntza-baliabideak. Esku-hartzearen inguruneari buruzko ikerketa sozioekonomikoak. Talde-teknikak. Aisialdiko web-orri espezifikoak.

3. konpetentzia-atala

Izena: AISIALDIKO ANIMAZIOKO HEZKUNTZA-TEKNIKAK ETA -BALIABIDEAK ERABILTZEAK.

Maila: 2

Kodea: UC1868_2

Lanbide-jardunak eta jardun horiek gauzatzeko irizpideak

RP1: Jarduera tematikoak garatzea, jarduerak interesgune edo animazio-ardatz bati lotuta, ekintza-testuinguru bat sortzeko.

CR1.1 Programazioa osatzen duten jarduerak aukeratutako interesgunearekin erlazionatzen dira, haren hezkuntza-asmoarekin koherenteak izateko, betiere motibazioari eutsita.

CR1.2 Interesgunea aukeratu eta garatu egiten da, kontuan hartuta parte-hartzaileen heltze- edo eboluzio-maila, interesak, beharrak eta programazioaren helburuak, hezkuntza-eraginkortasuna sustatzeko.

CR1.3 Jarduera oso baten elementuak eta antolatze metodoa ezagutu egiten dira, eta erreparatu egiten zaie praktikan jarri bitartean, jarduera haien arabera garatzeko.

CR1.4 Guneak eta instalazioak jarduerak animatzeko daukaten hezkuntza-ahalmena baliatuta erabiltzen eta eraldatzen dira.

CR1.5 Sormena sustatzen duten teknikak proposatutako helburuetara egokitzen dira, helburuok lortzeko.

RP2: Adierazpen-, animazio- eta sormen-teknikak aplikatzea, oinarri psikopedagogikoak kontuan hartuta, egin beharreko aisialdiko jardueretan erabiltzeko.

CR2.1 Adierazpen-elementuak, -teknikak eta -baliabideak (plastikoak, ahozkoak, musikalak, gorputzezkoak eta ikus-entzunezkoak, besteak beste) jardueren antolaketan eta gauzatzean erabiltzen dira animaziorako tresna moduan.

CR2.2 Hizkuntza plastikoaren hezkuntza-baliabideak jarduerak erabiliz aplikatzen dira bestelako komunikazio eta sormen motak sustatzeko.

CR2.3 Musika- eta soinu-animazioko baliabideak jardueretan aplikatzen dira, eta parte-hartzaileen motibazioa areagotzen dute, haien parte-hartzea sustatzeko.

CR2.4 Ahozko eta idatzizko narrazioa hezkuntza- eta jolas-baliabide moduan erabiltzen da adierazteko, transmititzeko eta jakinarazteko.

CR2.5 Gorputzezko eta antzerkizko adierazpen-baliabideak eta -teknikak jarduerak animatzeko erabiltzen dira, eta bizipen eraldatzaileak areagotzen dituzte.

CR2.6 Ikus-entzunezko eta informatikako teknikak eta baliabideak jarduerak animatzeko tresna moduan erabiltzen dira, interes handiagoa eta eguneroko bizitzarekiko lotura sortzeko.

CR2.7 Kultura-testuinguruetara hurbiltzean, hurbiltetak testuinguru garaikideak eta tradizionalak erkatuta erabiltzen dira, taldea motibatuzko.

CR2.8 Baliabideak eta teknikak sormenez egokitzen dira jardueren testuinguruetara, programatutako helburuak lortzea bideratzeko.

RP3: Hezkuntza-aisialdiko jarduerak garatzea, jolasaren bidez eta kirol-jokoaren nahiz joko fisikoaren praktikaren bidez dinamizatuta, jarritako helburuak lortzeko.

CR3.1 Jolasaren pedagogia jarduerak egitean aplikatzen da, jardueren hezkuntza-garapena lortzeko, parte hartzea eta helburuak lortzea motibatuta.

CR3.2 Materiala hezkuntza-irizpideak erabiliz aukeratzen eta antolatzen da, jardueran jarritako helburuak lortzeko.

CR3.3 Jardueretan erabiltzen diren jolasak, materialak eta bitarteko ludikoak hautatzean, xede duten talderako egokitasun-irizpideak eta jardueraren testuingurua kontuan hartzen dira, inplikazioa, parte-hartzea eta gogobetetzea bermatzeko.

CR3.4 Kirol-jokoak eta joko fisikoak pertsonaren alderdi fisikoa lantzeko eta talde-lana, lankidetzara, errespetua eta kooperazioa erakusteko erabiltzen dira, eta garapen pertsonalean laguntzen dute.

RP4: Hezkuntza-aisialdiko jarduerak egitea aire zabaleko ingurune batean, jarduerok zerikusia izanik naturarekin, aurreikusitako helburua lortzeko.

CR4.1 Ingurunearekiko errespetu- eta kontserbazio-balioak ingurumenaren jasangarritasun eta hobekuntzarako hezkuntza-aisialdiko jardueren bidez transmititzen dira.

CR4.2 Jarduera natura-ingurunean garatzean esku hartzen duten elementuak eta baldintzatzaileak kontuan hartzen dira, jarduera egitea bermatzeko, segurtasun-arauak beteta.

CR4.3 Helburuak natura-ingurunean lortzeko behar diren teknikak eta tresnak erabiliz garatzen dira jarduerak.

CR4.4 Ingurumen-hezkuntzaren baliabideak jardueretan aplikatzen dira, eta errespetua eta naturaren aldeko jarreraren sorrera sustatzen dituzte.

CR4.5 Txangoak egiteko eta gizabanakoa edo kolektiboa kanpatzeko ekipoa eta materiala kontserbazio-irizpideen arabera erabili eta biltegitratzen dira, haien osasungarritasuna eta iraupena bermatzeko.

CR4.6 Orientatzeko tresnak aurreikusitako lekuetara iristea lortzeko erabiltzen dira, jardueraren zertarakoa eta parte-hartzaileen segurtasuna zainduta.

RP5: Segurtasun-baldintzak aurreikustea, jarduerak aurreikusitakoaren arabera garatzen direla bermatzeko, gorabeheretan eta larrialdietan arreta-protokoloak erabilia.

CR5.1 Jarduerak zer inguruetan garatuko diren, ingurune horren ezaugarrien arabera programatzen dira, eta parte-hartzaileak kontuan hartuta, haien segurtasuna babesteko.

CR5.2 Segurtasun- eta higiene-arauak bidezko erabakiak hartuta gauzatzen dira, kutsadurarik eta istripurik izan ez dadin.

CR5.3 Arrisku-egoerak saihesteko aurreikusten dira, litezkeen ondorioak ahalik eta txikienak izan daitezzen.

CR5.4 Litezkeen arriskuei aurre egiteko behar diren bitartekoak aurrez prestatzen dira, egoera bakoitzean aplika daitezkeenak aukeratuta.

RP6: Arreta-protokoloak gorabeheretan eta larrialdietan aplikatzea, ondorioak ahalik eta txikienak izan daitezzen, esku hartzeko bitartekoak bermatuta.

CR6.1 Lehen laguntzen oinarritzko ezagutzak larrialdiei aurre egiteko aplikatzen dira.

CR6.2 Jarduerak garatzen diren inguruneko osasun-sareko zentroen kokapena identifikatu egiten da, eta zentroek ematen duten zerbitzuaren espezifikotasuna baloratu, baliatu behar izatea suertatzen denerako.

CR6.3 Botika-kutxaren oinarritzko edukia eta daukan kokapena ezagutu egiten dira, eta aldizka ikusten da egoera onean dagoen, erabili behar izatea suertatzen denerako.

Erabakitako urratsak egiten dira premia edo istripua izanez gero, litezkeen ondorioak ahalik eta txikienak izan daitezzen.

Lanbide-testuingurua

Produktzio-bitartekoak.

Kontsulta-liburuak Material espezifikoa informazioa, materiala eta ikus-entzunezko ekipoa biltzeko. Material espezifikoa jarduera motaren arabera (jolasa, natura, aire zabala eta txangoak). Material grafikoa. Guneak girotzeko materialak eta ekipoa. Lehen laguntzako materialak. Administrazio-dokumentazioa. Erregistroko dokumentazioa: jarraipen-orriak eta jardueren ebaluazioa. Ekipo informatikoak: informazioa tratatzeko softwarea. Larrialdietan jarduteko protokoloak. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKTak).

Produktuak eta emaitzak.

Adierazpen-tekniken eta bitarteko ludikoen bidez garatutako hezkuntza-aisialdiko jarduerak. Taldeari egokitutako aire zabaleko jarduerak. Tekniken eta bitartekoen fitxategiak eta bateriak. Ingurunea ezagutzea eta errespetatzea. Jarduera seguruak. Jarrerak eta balioak garatzea aisialdiaren hezkuntza- eta sormen-erabileran. Egindako jardueren ebaluazioa eta memoria.

Erabilitako edo sortutako informazioa.

Kontsultako bibliografia espezifikoa. Araudiak: natura-eremuak erabiltzeko segurtasun-arauak; sektoreko arau espezifikoa (erantzukizun zibila, instalazioen segurtasuna); segurtasun-arauak material fisikoak eta kirol-materialak erabiltzeko. Erakunde publiko nahiz pribatuen jardueren proiektuak eta memoriak. Gizartean esku hartzeko programak: ikus-entzunezko ekipoa erabiltzeko eta mantentzeko jarraibideak. Bideografia espezifikoa. Sektoreko webgune espezifikoa. Sarean baliabideak daitezkeen informazio- eta prestakuntza-baliabideak. Egindako jardueren txostenak eta memoriak. Dokumentazio grafikoa zenbait euskarritan. Istripuetan jarduteko protokoloa. Ekipoen eta materialen

dokumentazio teknikoak. Adierazpen-, animazio- eta sormen-teknikak. Aisialdiko web-orri espezifikoak.

III. PROFESIONALITASUN-ZIURTAGIRIRAKO PRESTAKUNTZA

1. PRESTAKUNTZA-MODULUA

Izena: HEZKUNTZA-JARDUERAK HAURREN ETA GAZTEEN AISIALDIAN

Kodea: MF1866_2

Lanbide-prestakuntzaren maila: 2

Konpetentzia-atal honi lotua:

UC1866_2. Haurrentzako eta gazteentzako hezkuntza-aisialdiko jarduerak antolatzea, dinamizatzea eta ebaluatzea.

Iraupena: 60 ordu

Gaitasunak eta ebaluazio-irizpideak

C1: Hezkuntza-aisialdiaren kontzeptua ez ezik, hezkuntzaren eta gizartearen esparru orokorraren barruan zer bilakaera izan duen ere aztertzea.

CE1.1 Hezkuntza, aisia eta aisialdi ideiak identifikatzea, balioestea zer-nolako garrantzia duten egungo errealitatean eta testuinguruan, eta historian zer bilakaera izan duten.

CE1.2 Aisialdian esku hartzeko modalitateak identifikatzea, eta haien garrantzia eta egokitasuna ebaluatzea zehaztutako testuinguruen arabera.

CE1.3 Adingabeentzako haur- eta gazte-aisialdiko jardueri aplikatu dakiekeen erreferentziazko araudia ezagutzea.

CE1.4 Esku-hartze egoeretan eragina duten egungo haur- eta gazte-errealitatearen ezaugarri nagusiak identifikatzea eta azaltzea, daukaten ingurunera egokitzeko.

CE1.5 Helburuen interpretazio- eta aukeraketa-kasu praktiko batean, zenbait hezkuntza-proiekturen edo -ideia multzoren artean dauden desberdintasunak eta alderdi komunak bereiztea, eta proiektu batean erabiliko gendakena hautatzea.

C2: Haurrentzako eta gazteentzako hezkuntza integrala sortzen duten eta sozializazioan esku hartzen duten eragileak eta hezkuntza-kontzeptuak identifikatzea.

CE2.1 Aisialdian esku hartzearen garrantzia balioestea, hezkuntza integrala lortzeko prozesuaren parte bat den neurrian.

CE2.2 Sozializazio-prozesuko funtsezko elementuak eta eragileak zehaztea, hurrekin eta gazteekin lan egitean zer-nolako eragina duten ulertuz eta azalduz, hezkuntza-jardunean kontuan hartzeko.

CE2.3 Gizartean parte hartzeko teknikak identifikatzea, kontuan hartuta jasotzaileen bilakaera-ezaugarriak eta gizarte-testuingurua.

CE2.4 Balioetan hezteko bideratzen duten aisialdiko jardueretan erabilitako estrategiak identifikatzea.

CE2.5 Aisialdian erabilitako dinamiketan transmititzen diren balioak aztertzea, eta hautematea zein sustatu behar diren eta zein kendu.

CE2.6 Aisialdiko hezkuntza-testuinguruetan aplikatu daitezkeen balioak, hala nola lankidetzak, tolerantzia, integrazioa, baterako hezkuntza, kulturartekotasuna, dibertsitatearen onarpena, osasunerako hezkuntza eta kontsumo arduratsua sustatzen dituzten jarduerak adieraztea.

C3: Haurren eta gazteen aisialdian esku hartzeari egotz dakizkiokeen erreferentziazko esparruak bereiztea.

CE3.1 Zenbait erakunderen hezkuntza-ideien edo -proiektuen ezaugarri bereizgarriak alderatzea, eta ebaluatzea haien proposamenak bat datozen ala ez helburuekin.

CE3.2 Garatu beharreko eguneroko jarduerak jasotzen dituen aisialdiko hezkuntza-proiektu baten oinarritzko egitura ezagutzea.

CE3.3 Zentroko edo aisialdiko jardueretako monitoreek eta zuzendaritzak bete beharreko eginkizunak deskribatzea.

CE3.4 Talde-lana identifikatzea aisialdian esku hartzeko oinarri metodologiko gisa.

C4: Haurrentzako eta gazteentzako hezkuntza-aisialdiko jarduerak prestatzea.

CE4.1 Lantalde batekiko koordinazio-kasu praktiko batean:

- Hezkuntza-aisialdiko jarduera-proiektuak prestatzea taldearekin koordinatuta, taldearen beharren eta interesen arabera jarritako helburuak kontuan hartuta.

CE4.2 Gaua pasatzea eta jarraitutasuna izatea eskatzen dituen jarduera intentsiboko kasu praktiko batean:

- Taldean aukeratzea eta prestatzea zehazten den ingurunerako eta xede duten talderako jarduera egokiak.

CE4.3 Esku-hartze testuinguruetan jarduerak garatzeko dauden baliabide, bitarteko eta materialen premiak adieraztea.

CE4.4 Jarduerak taldean abian jartzeko eta garatzeko kasu praktiko batean:

- Baliabide materialak aukeratzea, eta behar direnak antolatzea.

CE4.5 Jarduera-fitxa batean jasotzea lortu nahi den helburua ebaluatzeko aurreikusitako adierazleak.

CE4.6 Iraupen gutxiko jarduera-kasu praktiko batean:

- Taldean aukeratzea eta prestatzea jarduerak, eta arreta jartzea haien berezitasunean eta erritmoan.

CE4.7 Diseinatutako jarduerak gauzatzeko behar diren guneak identifikatzea, eta egokitzea, behar izanez gero.

C5: Proiektu bat aisialdiko hezkuntzaren arabera garatzeko behar diren ekintzen segida zehaztea.

CE5.1 Haurrentzako jarduera-kasu praktiko batean, zeinean ekintza mota bezala parte-hartzaileen adina ere zehazten baita:

- Aurkezpen ordenatua eta motibatzailea egiteko segida deskribatzea.

- Parte-hartzaileak antolatzeko modua adieraztea.

- Ekintzaren abiaraztea ezartzea.

- Prozedurak sortzea aurreikusi gabeko egoerak eta/edo talde parte-hartzailearen iradokizunak kontuan hartzeko.

CE5.2 Monitore-talde bati jarduerak abian jartzean eta garatzean egotz dakizkiokeen eginkizunak eta zereginak zehaztea.

CE5.3 Monitore-talde batek aisialdiko jarduera bat antolatzen modu koordinatuan lan egiten duen kasu praktiko batean:

- Erabakiak hartzeko prozesua ezartzea.

- Erantzukizunak banatzeko prozedura garatzea.

C6: Hezkuntza-jarduerak ebaluatzeko teknikak aisialdiko testuinguruetan aplikatzea.

CE6.1 Aisialdiko jardueretan erabiltzen diren oinarrizko ebaluazio-adierazleak eta - teknikak deskribatzea.

CE6.2 Aisialdiko jarduera baten ebaluazio-kasu praktiko batean:

- Taldeak eta hezkuntza-prozesuko beste eragile batzuek esku hartzen duten ebaluazio-teknikak aplikatzea.

CE6.3 Egindako eta ebaluatutako jarduera baten memoria idaztea, hobetzeko proposamen zehatzak gehituta.

C7: Monitorearen eginkizuna osasun-ohiturak transmititzen dituen eredu moduan balioestea.

CE7.1 Eguneroko portaeran eta jokamoldean bizitza-ohitura osasungarriak izatea, eredia izan dadin jardueretan parte hartzen dutenentzat.

CE7.2 Osasunarentzat arriskutsuak diren portaerak prebenitzeko hezkuntza-jarduerak ezagutzea, eta jasotzaileen ezaugarriak eta adinak kontuan hartzea.

CE7.3 Baliabideak identifikatzea, honako hauek direla eta: drogen kontsumoaren eta adikzioen aurkako sentsibilizazioa, bizitza osasuntsua sustatzea elikaduran, higienean, autozaintan, sexualitatean, eta haurren eta gazteen aisialdiko jardueretan erabil daitezkeen beste batzuk.

CE7.4 Parte-hartzaileen adina eta baldintzak zehazten dituen kasu praktiko batean:

- Osasunerako funtsezko hezkuntza-edukiak aukeratzea.

- Jardueretan sartzeko irizpideak aukeratzea.

Edukiak

1. Haurren eta gazteen aisialdiko hezkuntzaren oinarrien aplikazioa.

- Aisialdiaren erabilerak eta funtzioak egungo gizartean.

▫ Aisiaren eta aisialdiaren kuantifikazioa, banaketa eta funtzioak haurtzaroan eta gaztaroan.

▫ Hezkuntza integralerako eta sozializazio-prozesurako aplikazioa.

▫ Aisiak gizarte- eta hezkuntza-aisialdi moduan dauzkan funtzioak: testuinguruak, jarduerak eta esku hartzeko moduak.

- Haurren eta gazteen aisialdiko jarduerari dagokien legegintza-esparruaren aplikazioa.

▫ Legegintza-esparruei buruzko informazio- eta dokumentazio-iturrien azterketa eta kudeaketa.

2. Hezkuntza- eta sozializazio-prozesuak haurtzaroan eta gaztaroan aplikatzea.

- Hezkuntza-testuinguruak identifikatzea eta ezaugarritzea (hezkuntza formala, ez-formala, informala, integrala: helburuak, metodoak, testuinguruak eta abar).

- Hezkuntza- eta sozializazio-eragileak identifikatzea eta ezaugarritzea: familia, berdinen taldeak (talde informalak), eskola, auzoa, komunikabideak, erakundeak/elkarteak (talde formalak) eta abar.

- Sozializazio-prozesua haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan aplikatzea.

▫ Laguntza- eta arrisku-elementuak eta faktoreak.

▫ Gizarte-bazterketaren nahiz gizartean moldatu ezinaren banakako eta taldekako kausen eta ondorioen azterketa.

▫ Hezkuntza-arloko esku-hartze moduak sozializazio-prozesuan.

- Balioetan oinarritutako hezkuntza ematea eta hezitzailearen rola.
 - Balioen identifikazioa eta tipologia.
 - Aplikazioa aisialdiko jardueretan. Monitoreen jarduna.
 - Hezkuntzako aisialdian parte-hartzearen ebaluazioa eta metodoak.
 - Aisialdiko erakundeen eta jardueren identifikazioa.
 - Partaidetzarako ikaskuntza-metodoak eta estrategiak.
3. Proiektuak egitea haurren eta gazteen aisialdian parte hartzeko jardueretan.
- Hezkuntza-proiektuen erreferentziazko esparruen aplikazioa aisialdian.
 - Proiektuen metodologia. Proiektua taxutzen duten elementuak.
 - Proiektuen azterketa: aukera ideologikoak ebaluatzea.
 - Hezkuntza-proiektuak prestatzea haurren eta gazteen aisialdian.
 - Elementuen identifikazioa eta hezkuntza-proiektu baten egitura. Helburuak, helmugak, jasotzaileak eta testuingurua aztertzea.
 - Jardueren eta bitartekoen plangintza. Berrikuspen- eta ebaluazio-mekanismoak.
 - Aisialdiko monitorearen profilaren, eginkizunen eta jarduera-esparruen azterketa.
 - Talde-lanaren oinarritzko metodoak: monitore-taldea.
 - Zereginen eta erantzukizunen banaketa monitoreen taldean: parte-hartzea, koordinazioa eta osagarritasuna.
4. Haurren eta gazteen aisialdiko jardueren proposamena egitea.
- Jardueren proposamena aisialdiko hezkuntza-proiektuaren barruan zehazteko prozedurak.
 - Helburuak zehaztea
 - Interesguneen edo jardueren ardatzen ebaluazioa.
 - Jarduera-programen tipologia, bizitokia eta instalazioa, gaua ematea, elikadura, temporalitasuna eta/edo urtarokotasuna eta abar kontuan hartuta.
 - Aisialdiko jardueren programazioa: baliabide eta bitarteko materialen plangintza; guneak eta denborak zehaztea eta banatzea.
 - Aisialdiko jarduerak ebaluatzeko metodoak: adierazleak.
 - Jardueren erregistro-fitxa egiteko prozedura.
 - Haurren eta gazteen aisialdiko jardueren deskribapena, tenporalizazioa eta erritmoa.
 - Jarduera motak: sailkatzeko irizpideak, helburuak, baldintzak, baldintzapenak, egokitasuna giza testuinguruaren eta testuinguru fisikoaren arabera, aldaketak eta abar.
 - Jardueren plangintza berrikusteko prozedurak.
 - Zereginak eta eginkizunak esleitzea monitore-taldean, jarduerak prestatu eta garatzeko.
 - Denbora-banaketa jardueren programazioan: ordutegia, intentsitateen eta erritmoen mota eta txandaketa antolaketan.
 - Jarduera bat garatzeko prozesua: aurkezpena-motibazioa, garapena-inplikazioa, amaiera-ebaluazioa.
5. Aisialdiko jarduerak ebaluatzeko metodoak.
- Jardueren ebaluazioaren alderdiak edo esparruak identifikatzeko prozedura: helburuak, jarduerak, instalazioak, materialak eta baliabideak, talde-giroa, guneen eta denboren erabilera, monitoreen jarduera eta abar.
 - Ebaluazioaren metodologia eta faseak: adierazleen definizioa eta ebaluazioan esku hartzen duten eragileak.

- Jardueren memoria idaztea: egitura, ezaugarriak, hobetzeko eta etorkizunean ekintzak egiteko proposamenak.

6. Osasunerako hezteko estrategiak eta metodoak.

- Osasunerako hezkuntzako oinarrizko kontzeptuak. Bizitza-ohitura osasungarrien aplikazioa.

- Monitoreak osasunerako hezkuntzan dauzkan ardurak aztertzea.

- Arriskuko portaerak prebenitzeko bitartekoen eta metodoen plangintza.

- Bizitza-ohitura osasungarriak sustatzeko metodoak.

Orientabide metodologikoak

Urrutiko prestakuntza:

Prestakuntza-modulua	Urrutiko moduluaren ordu kopurua, guztira	Litekeen gehieneko prestakuntza- ordu kopurua
Prestakuntza-modulua – MF1866_2	60	20

Ikasleentzako sarrera-irizpideak

Eranskin honetan adierazten den lanbide-arloko profesionaltasun-ziurtagiria arautzen duen Errege Dekretuaren 4. artikulua araututakoak izango dira.

2. PRESTAKUNTZA-MODULUA

Izena: TALDE- ETA HEZKUNTZA-PROZESUAK HAURREN ETA GAZTEEN AISIALDIAN

Kodea: MF1867_2

Lanbide-prestakuntzaren maila: 2

Konpetentzia-atal honi lotua:

UC1867_2. Talde-prozesuetan jardutea, haurtzaroaren eta gaztaroaren portaera eta eboluzio-ezaugarriak aintzat hartuta.

Iraupena: 30 ordu

Gaitasunak eta ebaluazio-irizpideak

C1: Haur- eta gazte-garapenaren ezaugarri diren alderdien artean, aisialdian aplika daitezkeenak identifikatzea, jarduerak beraietan parte hartzen dutenak kontuan hartuta egokitzeko.

CE1.1 Bilakaeraren garapenak dituen faseen oinarrizko ezaugarriak zehaztea haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan, ezaugarriok sozializazio-prozesuari lotuta.

CE1.2 Ditzuten adinak zehazten diren haur- eta gazte-taldeekin egiten diren jarduerak garatzeko kasu praktiko batean:

- Ekintzen segida zehaztea.

- Jarduerak aukeratzea parte-hartzaileen garapen pertsonalaren eta kultura-ezaugarrien arabera.

CE1.3 Zenbait motatako pertsona-taldeein egokitutako komunikazio-baliabideak identifikatzea, adina edo egoera kontuan hartuta.

CE1.4 .Behaketa-teknikak aukeratzea, adin-taldeen ezaugarri orokorrak eta parte-hartzaileen ezaugarri bereziak zehazteko.

CE1.5 Hautematea zer desberdintasun dauden jardueretan parte hartzen duten taldeen eta pertsonen garapen ebolutiboaren eta errealitatearen artean.

C2: Esku hartzeko edukiak eta estrategiak aukeratzea, pertsonen eta taldeen dibertsitatearen arabera.

CE2.1 Desgaitasunen ezaugarriak deskribatzea, kontuan hartuta zer ondorio dituzten aisialdiko jardueren garapenean.

CE2.2 Trataera positiboa ematea jardueraren inguruan agertzen diren kultura-dibertsitateen ezagutzari, errespetuan oinarritutako lan-teknikak eta -strategiak aplikatuta.

CE2.3 Arazoak dituzten pertsonak barruan dituen talde baterako jarduerak prestatzeko kasu praktiko batean:

- Aisialdiko jarduerak antolatzea xede duten kolektiboaren arabera.

- Konponbideak proposatzea banakako edo taldekako arazoetarako, zuzenean edo zerbitzu espezializatueta bideratuta.

Genero-ikuspegitik, ezaugarri bereizgarri nagusiak deskribatzea, garrantzitsuak badira aisialdiko testuinguruetan aplikatuak izateko.

C3: Talde-teknikak aplikatzea haurrentzako eta gazteentzako aisialdiko jardueretan.

CE3.1 Talde-arazoak dituen kolektibo batekin aisialdiko jarduera bat garatzeko kasu praktikoa:

- Talde-dinamikako teknikak aukeratzea eta erabiltzea.

- Gatazkak kudeatzeko prozedurak aukeratzea eta erabiltzea.

CE3.2 Esku-hartze talde bat osatzen duten pertsonak deskribatzen diren kasu praktikoa:

- Taldeko kide bakoitzaren integrazioa, kohesioa eta komunikazioa bultzatzeko balio duten baliabideak eta teknikak identifikatzea.

CE3.3 Animazio-teknikak deskribatzea, talde baten bilakaeraren egoerak eta faseak kontuan hartuta.

CE3.4 Inklusioa sustatzen duten estrategiak deskribatzea, hezkuntza-aisialdiko jarduerak aprobetxatzeko eta baliatzeko.

CE3.5 Monitore batek lantaldeetan eta haur- eta gazte-taldeekin bete beharreko eginkizunak zerrendatzea.

Edukiak

1. Haur- eta gazte-garapen psikosozialaren aplikazioa aisialdiko jardueren proposamenetan.

- Garapen pertsonalaren faseen ebaluazioa: etapak haur- eta gazte-garapenean, garapen integrala haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan.

